

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

·Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Gure produktua bezeroengana helarazteko, banaketa kanal egoki eta legalak erabiliko genituzke, betiere adin nagusientzako salmenta dela bermatuz. Kalimotxo latan honako lekuetan eskainiko litzateke: supermerkatuetan, janari-dendetan, tabernetan, jaialdi edo ekitaldi baimenduetan, eta vending gune kontrolatuetan. Helburua produktua erraz eskuragarri izatea da, baina beti indarrean dagoen legedia errespetatuz.

Komunikazioari dagokionez, sare sozialak (Instagram, TikTok) erabiliko lirateke batez ere, marka ezagutarazteko eta produktuaren irudia lantzeko, beti publizitate egokia eginez. Horrez gain, kartelak eta promozio puntualak erabiliko lirateke, batez ere jai giroarekin lotutako testuinguruetan. Adibidez Gasteizko jaietan.